

**ERABAKIA, 2024ko MAIATZAREN 17koa, TEKAZEL FUNTZIONARIOEN PLANGINTZA BATZORDEARENA, PREMIAZKO BEHARRAK BETETZEKO KUDEAKETA BEREZIA ONARTZEKO (2019, 2020, 2021 ETA 2022ko LEPen OHIKO PROZESUETAN DEITUTAKO ESKALETAN IZENDAPENAK EGITEKO BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK SORTUZ).**

2017ko uztailaren 18ko erabakiaren bidez hainbat irizpide onartu ziren lan poltsak sortu eta kudeatzeko, baita poltsetako kideak ordenatzeko ere (EHAA 93. zk., 2018ko maiatzaren 16koa).

UPV/EHUko TEKAZELen lan poltsak 2 multzo nagusitan daude sailkatuta: funtzionarioen poltsak eta lan kontratudunen poltsak, kasuan kasuko zerbitzurako aurreikusi den lan loturaren arabera (administratiboa edo lan kontratuduna). Multzo horietan, lan poltsak titulazio taldeetan daude antolatuta, bete behar den lanposturako eskatzen den titulazioari dagokion maila kontuan hartuta, eta talde bakoitzean hainbat poltsa egon daitezke, eskala edo kategoria/espezialitatearen arabera.

Aipatu erabakiaren 7. artikulua honela dio:

*"7.1. Administrazioak egungo poltsak zabaldu beharko ditu lanerako moduan dauden izangaien kopurua ez denean nahiko aurreikusten diren premiei erantzuteko. Horretarako, behar diren aldi baterako hautaketa deialdiak egingo ditu.*


*7.2. Halaber, Plangintza Batzordearekin adostu eta gero, lan poltsa gehiago sortu ahal izango dira, egungo ez bestelakoak, betiere, arrazoi objektiborik eta zentzuzkorik badago eta unibertsitatearen intereseko arrazoiek hala eskatzen badute, profil profesional zehatz bat behar duten lanpostuetako premiei egoki eta azkar erantzun ahal izateko.*

*7.3. Aurreko puntuetan jasotako prozesuez gain, Plangintza Batzordearekin adostu eta gero, aldi baterako enplegu deialdi espezifikoak egin ahal izango dira premia puntualei erantzuteko. Deialdi horietako izangaiak horrelako premietarako bakarrik izango dira, eta ez dute lan poltsarik osatuko.*

*7.4. Administrazioak unibertsitateak berak egindako hautaketa prozesuetatik abiatuta osatuko ditu lan poltsak, eta salbuespenez, behar bezala arrazoitutako eta Plangintza Batzordeak onartutako kasuetan, eta soilik horietan, beste esparru batzuetan egindako hautaketa prozesuetako lan poltsetan lanerako moduan dauden pertsonengana jo ahalko du..."*

Aukeraketa hau baldintzatuko dute eraginkortasun, eragimen eta eragingarritasun administratiboaren printzipioek: deialdi espezifiko edo lan eskaintza publikoren bat egiteko aukera materialek, zerbitzuak emateko dagoen premiak eta zerbitzuak emateko profil zehatzak.

Gaur egun, honako inguruabar hauek bat egiten dute unibertsitatean:



1067  
CC00  
ELA  
STEMS

- Lan poltsa gehienetan ez dago administrazio honen langile beharrak asetzeko behar beste kide.

- Arautegian plazak betetzeko bide gisa aurkezten dira lan eskaintza publikoen deialdiak, eta une honetan gauzatzen ari dira 2019, 2020, 2021 eta 2022ko LEPen ohiko prozesuak, hainbat kidego eta eskaletan.

Oposizio fasea bukatu eta behin betiko emaitzak argitaratu ondoren, administrazio honetako lan poltsak osatuko dituzten kideen artean kudeaketa berezia egitea proposatu da; hau da, behin-behineko zerrendak osatu nahi dira, betiere arautegia eta antolamendua kontuan hartuta, eta eraginkortasun eta efizientzia administratiboaren printzipioak ezarrita.

Horregatik guztiagatik, TEKAZEL funtzionarioen Plangintza Batzordeak, 2024ko maiatzaren 13ko saioan, honako hau

#### ERABAKI DU

1.- Premiaz bete behar diren lanpostuetarako kudeaketa berezia ezartzea. Horretarako, behin-behineko zerrendak sortuko dira 2019, 2020, 2021 eta 2022ko LEPen ohiko prozesuetako emaitzekin (2024ko maiatzaren 14an argitaratutakoak).

Behin-behineko zerrenda horiek salbuespenez erabiliko dira, lanpostu hutsak dagokion lan poltsaren ohiko kudeaketaren bidez bete ezin direnean soilik.


2.- Esleipenean interesa duten pertsonak oposizio fasearen behin betiko puntuazioaren arabera ordenatuko dira (2024ko maiatzaren 13an argitaratutakoa), betiere eskala bakoitzean deitu den ohiko prozesuan 17,5 puntu edo gehiago lortu badituzte.

3.- 5 egun naturaleko epea irekiko da, interesdunek parte hartzeko instantzia aurkez dezaten Lan Eskaintzen Atarian.

Hala egiten ez duten interesdunen eskabideak baztertu egingo dira.

4.- Oposizio fasearen puntuazioan berdinketarik egonez gero, parte hartzeko eskabideak zozketa bidez ordenatuko dira. Horretarako, poltsa batetik lau zenbaki aterako dira banan-banan, hurrenez hurren eguna, ordua, minutua eta bigarrena adieraziko dutenak; eta horren arabera antolatuko dira berdinduta dauden eskaerak, gorako ordenan.

5.- Aurreko ataletan adierazitakoa betez ezarri den ordena edozein delarik ere, izendapena egiteko behar-beharrezkoa izango da betetzeko dagoen lanpostuari ezarritako baldintzak beteak izatea ohiko prozesuan izena emateko epea bukatutakoan.



UGT CCOD ELA STEILAS

Baldintzak betetzen direla erabakitzeko, kontuan hartuko da 2019, 2020, 2021 eta 2022ko LEPetan ohiko prozesu bidez deitutako eskalaren espedientean jasota dagoen dokumentazioa.

6.- Instantziak aurkezteko epea bukatutakoan, eskala bakoitzeko behin-behineko zerrendak argitaratuko dira deialdiaren webgunean.

Behin-behineko zerrendek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dute eragina.

7.- Kudeaketa berezi honek ez du inola ere aldatuko 2022ko ekainaren 30eko Akordio bateratuaren C atalean poltsei buruz jasota dagoena (Akordio bateratua, 2022ko ekainaren 30ekoa, AZPko lan kontratadunen eta AZPko funtzionarioen negoziazio mahaiena, 2019, 2020, 2021 eta 2022ko LEPetako sarrera prozesuetako deialdiak arautzeko gutxieneko irizpideei buruzkoa).

8.- Behin-behineko zerrenda hauek baliorik gabe geratuko dira aurreko atalean aipatutako poltsak argitaratzen direnean eta, edozein kasutan, 2024ko abenduaren 31 iristean.


Leioa, 2024ko maiatzaren 17a

  
FETE-UGT

LAB


  
www.steilas.eus

STEEILAS



CCOO

  
ELA

  
UPV/EHU

130